

Infinitiboa

gramatika mailan bai →hiztegi mailan, non ez bait dago horiek azaltzerik jatorri erkide baten bidez ez bada. Beste hitzez esateko, historiaurreko garairen batetan eta lurralde gehiago edo gutxiago zabalean egiten den hizkuntza berberak leku eta garaien arabera izan dituen eboluzio desberdinetatik datoz, zalantza gabe, aipatu hizkuntzak. Historiaurreko hizkuntza honi indoeuroparra edo indoeuropar hizkuntza esaten zaio. Izkriburik utzi gabe desagertu zen, baina berreratu ahal izan dira neurri batean gramatikaren ezaugarri nagusiak, baita hiztegiaren parte bat ere.

Infinitiboa

Gramatika tradizionalari dagokion terminoa da hau; eta, beronen bidez, hizkuntza indoeuroparretan aurkitzen diren →aditz-joko bereziak izendatzen ditugu.

1) Aldaezinak dira, ez dute →flexiorik: *esse* «izan», *amare* «maite izan, maitatu». Erizpide hau, dena dela, ez da beti nahastezina. Forma simple horiez gainera, *amatum/ -am/ -um esse* pleguko forma perifrastikoak ere jotzen ditu infinitibotzat: hauetako lehenengo elementuak halako adjektibotasun-kutsua du, eta bai →generoz bai →kasuz komuntzatzen du →subjektuarekin (→akusatibo gisa, eskuarki).

Beste alde batetik, →gerundio izeneko adizkiekiko erlazio sintaktikoa eta semantikoa ez zuen behar bezala azaldu. Hots, infinitiboarekin →banaketa - osagarrian dauden adizkitzat har daitezke horiek; *causa gerendi bellum*, «con el fin de hacer la guerra» (→genitiboa).

2) →Aditzaren →esanahi lexikala bilitzen duten adizkiak dira, soilki (Vinoogradov, Ružcka...). Erizpide semantiko hau ere maingu gelditzen da; infinitiboa eta aditz-izen →abstraktuak berezteko biderik ematen ez duelako: *amor* «maitetasun», eta jatorrian *amare*, «maite izan».

Zail izaten da zein lexiko →kategoriatan behar den sartu; baita, neurri berean, hizkuntza batek infinitiborik duen ala ez duen erabakitzea. Artikulu →mugatzailarekin eta →adjektiboekin elkartu ohi da maiz; baina, alderantziz, →pluralik ez du izaten. Orain artean aipatuta-

ko erizpideak baino garrantzitsuago izaten da →eraenketari dagokiona.

3) Eraenketa. Hizkuntza →indoeuroparretan, aditzezko →eraenketa gertatzen da perpaus konpletiboetan, eta eliditua ez den subjektua akusatiboan agertzen da: izen-→sintagma denean (artikuluekin, adjektiboekin), izenezko eraenketa agertzen du; alemanieraz eta gaztelaniaz, esate baterako.

Beste alde batetik, bai latindar literaturan, bai batez ere antzinako hindueran, aditz-eraenketa duten izen abstraktuak gertatzen dira: *quid tibi hanc curatio* (= izen abst.) *est rem* (= akus.) (= zergatik kezkatzen hau honek?).

Georgieraz eta irlandezaz ez dago inolako alderik izen abstraktuekin. Arabieraz, berriz, aditz-eraenketa duten izen abstraktuei dagokien →funtzio sekundarioaz mintza daiteke.

Bai turkieraz, bai latinez, gerundioak izen-jokoa du, baina aditz-eraenketa. Eta ikuspegi hau oraino era zailago batetan agertzen da →denbora, →aspektua, →modua, →boza, eta gainerako aditz-→kategoria jatorrak kontutan hartuz gero... Portugesez, adibidez, infinitiboak baditu →pertsona-→atzizkiak ere: *compramos, comprades...* Nolanahi ere, hizkuntza →indoeuroparretan fosildurik gelditu diren antzinako aditz-izenak dira; eta antzinako alemanieraz bazuten oraindik halako deklinazio-arrastorik. Bete-betean aditz-itxura hartuko duen adizkirako →aldaketa argiro ikus daiteke, esate baterako, Vedatar kantuak eta antzinateko hizkuntza klasikoa alderatzean (sanskritoa).

J. L. Iturrioz
Itz.: Txillardegi

Inflexioa

inflexión / inflexion / inflection

→Bokal batek alboko bokal baten eraginez zenbait kasutan jasaten duen tinbre-→aldaketari esaten zaio batzutan inflexioa. →Metafoni kasu berezi bat da.

Informazioa

Eman dezagun →mezu hau:

zozozozozozozoz...

Pittin bat entzun ondoren, benetan,